



## **2010EKO OTSAILAREN 10EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko otsailaren hamarrean, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko urtarrilaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2009ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 15 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BI EURO eta HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (63.942,29€)takoa eta 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, ZORTZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO eta ZENTIMO BAT (8.631,01€)etakoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 789 zbk.dun esped.; 427 zbk.dun esped.; 775 zbk.dun esped.; 787 zbk.dun esped.; 83 zbk.dun esped.; 09-01-009 zbk.dun esped.; alokairu eta mantenimentu gastuengatik jasotzen zituzten dirulaguntzetatik baja ematea etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzeagatik.

- 789 zbk.dun esped.: jasotzen zituen laguntzetatik baja ematea bizilekuz aldatu delako.

#### **Drogomenpekotasuna, garraiorako laguntza.-**

- 10-14-001 zbk.dun esped.: garraio laguntzatik baja ematea ez delako joaten Gizakia Helburura.

- 10-14-003 zbk.dun esped.: hilean 24,90 €ko dirulaguntza ematea.

- 10-14-002 zbk.dun esped.: hilean 53,95 €ko dirulaguntza ematea.

#### Presoen familientzat garraiorako laguntza.-

- 09-13-01 zbk.dun esped: bere aita preso dagoenez, bisitetarako hilerro ematen zaion dirulaguntza berrikustea, 81,92 €tik 83,20 €ra.

#### IV.- SANTA MADALENA PLAZAKO URBANIZAZIO LANEN LEHEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Santa Madalena plazako urbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak eta Pedro Izaskun eta Amagoia Azurmendi arkitektoek 1 zk.dun zertifikazioa aurkeztu dute. Zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HAMA-LAU MILA ZORTZIREHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (174.824,28 €)koa da. Lan hauek MIGUEL IMAZ, S.A enpresa ari da burutzen.

Obra egiaztigiri hau udaletxean 2009ko abenduaren hasieran aurkeztu zen eta denbora asko zamarrela eta, alkatetzaren ebazpen bidez onartu zen 2010eko urtarrilaren 26an.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

#### V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura eta Euskara Batzordetik, Mintzalguna Proiektuaren garapena aurrera eramateagatik, Goierriko Euskal Eskola elkarteari, 2009ko irailetik abendura bitarteko jardunarengatik, bost mila euroko (5.000 €) dirulaguntza ematea proposatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien aldeko bo-tuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Antsoategi Elkarteari.-

Astotxo eguneko asto erakusketa eta lehiaketa antolatzeagatik 1.000 € ordaintzea.

##### Goierriko Euskal Eskolari.-

Gerriko Ikerlan Bekaren 2. zatiaren ordainketa egitea, 2.500 €.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

LAZKAOKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

A handwritten signature in purple ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a trailing flourish.

